“Gutxieneko lurzatia”ren parametroak beteko ditu lurzatikatze proiektu baten eta hura dela-eta egiten den xehetasunezko azterlanean xedatutakoaren ondorio den lurzati konfigurazioaren banaketarengatik sortutako lurzatiak.

3.6.2 Berriro lurzatikatzea:

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikuluan eta harekin bat datozen gainerako arauetan xedatutakoak zehaztuko du.

Berriro lurzatikatzeko proiektuak plan partzial honetan araututako lurzati konfigurazioa aldatzeko, ezinbestekoa izango da, aldez aurretik, xehetasunezko azterlana egin eta onartzea, bai eta “gutxieneko lurzatia”ren parametroak betetzea ere.

3.6.3 Xehetasunezko azterlana:

Euskal Herriko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. eta 74. artikuluetan eta Hirigintza Planeamenduaren Arautegiaren 65. eta 66. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, egingo da xehetasunezko azterlana.

Xehetasunezko azterlanek ezin izango dute aldaketarik egin toki sistemetan.

Era berean, plan partzial honetan ezarritako baldintzak eta egungo arau subsidiarioetan edo horiek aldatzen edo berrikusten dituztenetan ezarritakoak bete beharko dituzte.

“Gutxieneko lurzatia”ren parametroak beteko dituzte xehetasunezko azterlan baten ondorioz jatorrizko jabegoaren banaketarengatik sortutako lurzatiek.

Bide sareko plan partzialak ezarritako ezaugarrietara egokituko dira xehetasunezko azterlanean xedatutako bolumenen antolamendu berriaren ondorioz sortutako bideak.

Bete egingo dira plan partzialean zehaztutako lerrokadurak eta eraikuntza lerroak, hau da, xehetasunezko azterlanaren mendeko areako lerrokaduren eta sestren markak osatu egingo ditu plan partzial honen agiri grafikoetan zehaztutakoak; era berean, xehetasunezko azterlanak bolumen antolamendurik jasotzen badu, antolamendu horrek agiri grafikoetan zehaztutako eraikuntza lerroa beteko du, zeinak gehieneko izaera izango duen.

Dena den, justifikatu egingo da eragindako eremuan eraikigarritasuna betetzen dela.

Las parcelas generadas por subdivisión de la configuración parcelaria por efecto de la formulación de un proyecto de parcelación y con arreglo a las determinaciones del estudio de detalle a que tal objeto se formule, deberán cumplir los parámetros de “parcela mínima”.

3.6.2 Reparcelación:

Tendrá el alcance contenido en el artículo 42 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y demás normativa concordante.

Para que el proyecto de reparcelación pueda alterar la configuración parcelaria prevista en el presente Plan Parcial, constituirá requisito previo la formulación y aprobación del correspondiente estudio de detalle, debiendo cumplirse, en todo caso, los parámetros de “parcela mínima”.

3.6.3 Estudios de detalle:

Los estudios de detalle se formularán de acuerdo a las determinaciones establecidas en los artículos 73 y 74 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco y de los artículos 65 y 66 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

En ningún caso podrán introducir modificaciones en sistemas locales.

Igualmente se someterán a cuantas condiciones se impongan en la presente Plan Parcial y todas aquellas definidas en las actuales Normas Subsidiarias o en sus futuras modificaciones o revisiones.

Las parcelas generadas por subdivisión de la propiedad original por efecto de la formulación de un estudio de detalle deberán cumplir los parámetros establecidos para la “parcela mínima”.

Los viales generados a partir de la nueva ordenación de volúmenes establecida en el estudio de detalle deberán ajustarse a las características establecidas por el Plan Parcial para la red viaria.

Se respetarán las alineaciones y las líneas de edificación dispuestas en el Plan Parcial, es decir, el señalamiento de las alineaciones y rasantes del área afectada por el estudio de detalle complementará las establecidas en la documentación gráfica de este Plan Parcial; así mismo, la ordenación de volúmenes que, en su caso, contenga el estudio de detalle, respetará la línea de edificación establecida en dicha documentación gráfica, que tendrá carácter de máximo.

En todo caso, se justificará el cumplimiento de la edificabilidad en el ámbito afectado.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**920**

**62/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 8koa, Artziniegako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen lehenengo aldaketa behin betiko onartzen duena, zenbait baldintzarekin.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Artziniegako Udalak, 2012ko apirilaren 17ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen lehenengo aldaketa puntualari buruzko espedienteari, eta hori jendaurrean jartzea. Azken hori, ALHAOn (12 zk., 2012ko maiatzaren 7koa), El Correo egunkarian (2012ko maiatzaren 6an), Diario de Noticias de Álava egunkarian (2012ko maiatzaren 6an) eta udalaren iragarki taulan iragarki egokiak argitaratuz egin zen.

Bigarrena.- Jendaurreko informazio aldian, ez zen inongo alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2012ko ekainaren 7ko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren 7/2012 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Laugarrena.- Artziniegako Udalak espedientea bidali zuen behin betiko onarpena jasotzeko (Aldundiko Erregistroko sarrera data: 2012ko azaroaren 7a). Ondoren, 2012ko azaroaren 16an, dokumentazio osagarria eskatu zitzaion udalari eta hark 2012ko abenduaren 20an igorri zuen eskatutakoa.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**920**

**ORDEN FORAL 62/2013, de 8 de febrero, aprobación definitiva con condiciones de la primera modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Artziniega.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Artziniega acordó, en sesión del día 17 de abril de 2012, aprobar inicialmente el expediente de la primera modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA número 12, de 7 de mayo de 2012, en los periódicos “El Correo” de 6 de mayo de 2012 y en el Diario de Noticias de Álava de 6 de mayo de 2012, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 7 de junio de 2012, a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco informó favorablemente el expediente en su sesión 7/2012, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Artziniega remitió el expediente para su aprobación definitiva con fecha de entrada en Registro de esta Diputación de 7 de noviembre de 2012, solicitándose documentación complementaria en fecha 16 de noviembre de 2012, la cual fue remitida por el Ayuntamiento en fecha 20 de diciembre de 2012.

Bosgarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horri buruzko txostena egin zuen urtarrilaren 28ko 1/2013 bilkuran.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientearen xedea da lurzoru urbanizagarriko zenbait sektoreri atxikitako sistema orokorrak berriro zehaztea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 53.1f) artikuluan xedatutakoa oinarri hartuz.

Bigarrena.- Sistema horiek berriro zehazteko arrazoiak hauexek dira: higiezinen arloa geldialdia jasaten ari da eta, horren ondorioz, udalak ezin jardun dezake berriro urbanizatzea behar duten eta, ekimen pribatuaren menpean daudenez gero, udaleko hirigintza jarduera geldiarazten duten titulartasun publikoko lurzoruetan. Horregatik, aldaketa honen bidez ahalbidetu egiten da zenbait lurzoru desafektatzea lurzoru urbanizagarriko sektoreetatik eta, ondorioz, udalak gauzatu nahi dituen ekimenak desblokeatzea.

Hirugarrena.- Udaletxean onartutako dokumentuak atxikipenak ezabatu ditu lehentasunezkoak irizten zaien jarduketetan, baldin eta proposatutako aldaketa baino lehenago jabeekin izenpetutako hitzarmenik behar ez duten jarduketak badira eta sektore urbanizagarri horien garapenerako funtzionalki beharrezkoak ez badira.

Sektore horietako etxebizitza kopurua ere ez da aldatu, ez eta bertako erabilera eta jabari publikoko espazioak ere.

Laugarrena.- Proposatutako jarduketetan atxikipen hauek mantendu edo ezabatuko dira:

SAUR-0 bizitegitarakoa, Zaballa-Mendebaldea:

- Ezabatuko dira kanpoko sistema orokorren atxikipenak (Arteko parkea), herrigune historikoko BIPBko jabeekin izenpetutako hitzarmenetan eragina dutenak izan ezik, hau da, hurrengo hauek mantenduko dira:

GLV/5: La Mora parkea

GE 8/2; GE 9/2 La Mora Jauregiaren birgaitzea

GC 1/8: Aurrekoaren ondoko aparkalekua.

SAUR-1 Hormaza:

- Ezabatuko dira GC 1/11ri, kiroldegiaren ondoko aparkalekuari eta eskola aldearen ondoko espaloiei dagozkien zamak, lehentasunezko jarduketa baita.

- Era berean, ezabatuko dira oinezkoen ibilbideak, ibai bazterrekoa barne dela, espaloien zabaltzea eta A-2604 errepidearekiko lotura.

SAUR-2 bizitegitarakoa, Zaballa-Ekialdea:

- Oinezkoen pasabidea eta espaloiak ezabatuko dira.

- A-2602 eta A-2604 errepideetako espaloiak desatxiki eta SAUR-1era pasatuko dira.

- Honako hauek sektoreko zama bezala mantenduko dira: oinezkoen ibilbideak, ibai bazterrekoa barne dela, eta gasolindegitik SAUR-2rainoko espaloia.

SAUI-1 Industriakoa, Barrataguren-Iparraldea:

- Ezabatuko da ibai ondoko oinezkoen ibilbidearen sistema orokorra.

- Espaloiak gehituko dira A-624 errepidera sartzeko biribilgunetik sektoreraino.

- Sektore aurreko espaloiak mantenduko dira.

Bosgarrena.- Aurrekoaren ondorioz, aldatu beharko lirateke, alde batetik, jarduera plana, SAUI-1 Barrataguren delakoaren garapena bigarren laurtekora pasatzearen ondorioz, eta bestetik, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa, egoera berrira egokitu behar baita.

Seigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, urriaren 11ko 7/2012 bilkuran, ez zuen inolako trabarik jarri, bere txostena loteslea den alderdietan, espedienteak aurrera egin zezan.

Zazpigarrena.- Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak zenbait baldintza ezarri ditu:

Quinto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 1/2013, de 28 de enero.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene por objeto la redefinición de los sistemas generales adscritos a sectores de suelo urbanizable en base a lo dispuesto en el art. 53.1f) de la Ley del Suelo y Urbanismo 2/2006.

Segundo.- La redefinición viene motivada por la situación de estancamiento que se vive en el sector inmobiliario, lo cual se traduce en la imposibilidad, por parte del Ayuntamiento, de poder actuar en aquellos suelos de titularidad pública que necesitan ser reurbanizados y que por estar supeditados a la iniciativa privada producen la paralización de la actividad urbanística municipal. Es por ello que con la modificación se posibilita la desafectación de varios suelos de los sectores de suelo urbanizable y consecuentemente el desbloqueo de las iniciativas que pretende llevar a cabo el Ayuntamiento.

Tercero.- El documento aprobado en sede municipal elimina las adscripciones en aquellas actuaciones que se consideran prioritarias y que no están afectadas por convenios suscritos con los propietarios con anterioridad a la modificación propuesta y no son funcionalmente necesarias para el desarrollo de dichos sectores urbanizables.

Tampoco se modifica el número de viviendas de los mismos, ni sus espacios de uso y dominio públicos.

Cuarto.- El mantenimiento y eliminación de las adscripciones de las actuaciones propuestas son:

SAUR-0 Residencial Zaballa Oeste:

- Se eliminan las adscripciones de sistemas generales exteriores (Parque de la Encina), con excepción de los que afectan a los convenios firmados con los propietarios del PERHI del Casco Histórico que son y se mantienen:

GLV/5: Parque de la Mora

GE 8/2; GE 9/2 Rehabilitación del Palacio de la Mora

GC 1/8: Aparcamiento junto al anterior.

SAUR-1 La Hormaza:

- Se eliminan las cargas correspondientes al GC 1/11, aparcamiento junto al polideportivo y aceras junto a la zona escolar, al tratarse de una actuación prioritaria.

- Se eliminarán, así mismo, los paseos peatonales incluido el de la Ribera del Río, la ampliación de aceras y conexión con la carretera A-2604

SAUR-2 Residencial Zaballa Este:

- Se elimina la pasarela peatonal y las aceras.

- Las aceras en la carretera A-2602 y A-2604 se desadscriben y pasan al SAUR-1.

- Se mantienen como cargas del sector: paseos peatonales incluido el de la ribera del río, y la acera desde la gasolinera hasta el SAUR-2.

SAUI-1 Industrial Barrataguren Norte:

- Se elimina el sistema general de paseo peatonal junto al río.

- Se incluyen aceras desde la rotonda de acceso de la A-624 hasta el Sector.

- Se mantienen las aceras frente al Sector.

Quinto.- Como consecuencia de lo anterior, resultan modificados el Plan de Actuación, al pasar al segundo cuatrienio el desarrollo del SAUI-1 Barrataguren, así como el estudio de viabilidad económico-financiera, adaptándose a la nueva realidad surgida.

Sexto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en la Sesión 7/2012, de 11 de octubre, no puso objeción al expediente, en los aspectos cuyo carácter de informe se considera vinculante.

Séptimo.- El Servicio de Carreteras de la Diputación Foral de Álava ha impuesto diversas condiciones:

- SAUR-0 Zaballa-Mendebaldea: ezabatu egingo da A-624 errepidetik GC 1/10era (Jauregia urbanizazioaren eta SR-1en arteko aparkaleku zona) zuzenean iristeko bidea.

- SAUR-1 La Hormaza: Soxora iristeko A-4624 errepidearen ondo-ondoan, ikastolatik gertu, espaloiak egiteko jarduketek eta urbanizazio jarduketek finantzaketa publikoa jasoko dute, eta Herrilan eta Garraio Sailarekin koordinatuta gauzatuko dira.

- SAUR-2 Zaballa-Ekialdea: A-2604 Artziniega-Sodupe errepidearen ondoko espaloia, eskuinaldean, Artziniegara iristeko biribilgunetik hasi eta SAUI-1 sektorearen mugaraino, kanpoko zama gisa ageri da SAUI-1 sektorean; hortaz, SAUR-2 sektoretik ezabatuko da.

A-2602 errepidearen ondo-ondoan espaloiak egiteko jarduketek eta urbanizazio jarduketek finantzaketa publikoa jasoko dute, eta Herrilan eta Garraio Sailarekin koordinatuta gauzatuko dira.

- SAUI-1: ezabatuko da ibai ondoko oinezkoen ibilbidearen sistema orokorra eta espaloiak gehituko dira A-624 errepidearen biribilgunetik hasi eta sektoreraino, eskuinaldean.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Artziniegako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen lehenengo aldaketari buruzko espedientea, bide sareari eta finantzaketa publikoari buruz foru agindu honetan zehaztutako baldintzekin.

Bigarrena.- Adierazitako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, horiek zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio (testu bateratua osatuta), berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 8a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

- SAUR-0 Zaballa Oeste - Se eliminará el acceso directo desde la carretera A-624 al G.C.1/10: Zona de aparcamientos entre urbanización “El Palacio” y el SR-1.

- SAUR-1 La Hormaza - Las actuaciones de urbanización y aceras colindantes con la carretera A-4624 de acceso a Sojo, junto a la ikastola, serán objeto de financiación pública y se ejecutarán de forma coordinada con el Departamento de Obras Públicas y Transportes.

- SAUR-2 Zaballa Este - La acera contigua a la carretera A-2604 Artziniega-Sodupe en el lado derecho desde la rotonda de acceso a Artziniega hasta el límite del Sector SAUI-1, aparece como carga externa en el Sector SAUI-1, por lo que se eliminará de este sector SAUR-2.

Las actuaciones de urbanización y aceras colindantes con la carretera A-2602, serán objeto de financiación pública y se ejecutarán de forma coordinada con el Departamento de Obras Públicas y Transportes.

- SAUI-1 – Se eliminará el Sistema General de paseo peatonal junto al río y se incluirán aceras desde la rotonda de la A-624 hasta el Sector, por su margen derecho.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Primera modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Artziniega, con las condiciones en materia de vialidad y de financiación pública señaladas en el cuerpo de esta Orden Foral.

Segundo.- Las condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, elaborando un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 8 de febrero de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

**911**

**Egin gabeko jakinarazpenak**

Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoaren indarrez, administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena ezin egin daitekeenez, eta gutxienez aipatutako artikuluan agindutako jakinarazpen ahaleginak egin direlarik, iragarki honen bidez zitazioa egiten zaie ondorengo zerrendan aipatzen diren zergapekoei, beren ordezkariei edo interesdunei, zerrenda horretan adierazten diren administrazio egintzak bertaratuta jakinarazteko.

Interesdunek edo beren ordezkariak, gehienez ere 15 eguneko epearen barruan, iragarki hau ALHAOn argitara ematen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, Arabako Foru Aldundiaren bulegoan agertu beharko dira (helbidea: Probintzia Plaza, 13, Vitoria-Gasteiz), astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian 8:00etatik 14:00etara eta astelehenetik ostegunera, arratsaldeko ordutegian 15:30etik 18:30era artean, Dirubilketa bulego horrek izapidatzen duen prozeduran egin gabeko jakinarazpenak gauzatzeko.

Esandako epea igaro eta ez-agertzea gertatuz gero, jakinarazpena gauzatutakotzat joko da lege ondorio guztietarako, agertzeko ezarritako epea bukatzen den egunaren hurrengotik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 11.– Ogasun zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

**911**

**Notificaciones pendientes**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero), no siendo posible practicar la notificación por causas no imputables a la Administración y habiéndose realizado, al menos, los intentos de notificación exigidos por el citado artículo, por el presente anuncio se cita a los obligados tributarios, representantes o interesados que a continuación se relacionan, para ser notificados por comparecencia de los actos administrativos que figuran en la citada relación.

Los interesados o sus representantes deberán comparecer en el plazo máximo de 15 días naturales, contados desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOTHA, en horario de mañana, de lunes a viernes de 8:00 h. a 14:00 h., o, en horario de tarde, de lunes a jueves de 15:30 h. a 18:30 h., en la oficina de la Diputación Foral de Álava sita en Plaza de la Provincia nº 13 bajo de Vitoria–Gasteiz, al efecto de practicarse las notificaciones pendientes en el procedimiento tramitado por la citada Dependencia de recaudación.

Cuando transcurrido dicho plazo no se hubiera comparecido, la notificación se entenderá producida a todos los efectos legales desde el día siguiente al del vencimiento del plazo señalado para comparecer.

Vitoria-Gasteiz, 11 de febrero de 2013.– El director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.